

AFRIKAKO EMAKUMEEN Sexu- eta ugalketa- eskubideak

Bizkaiko ehun asoziatiboan






Argitaratzailea: Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional

Conde Mirasol Kalea 7, beheko solairua, 48003 Bilbo
+34 94 479 22 58 / solidaridadol-inter.org
www.solidaridadsi.org

Ikertzailea eta dinamizatzailea: **Anita Hichaicoto**
Ikerketarako kolaboratzaileak: **Aram Diouf y Josefina Bindang**



Finantzatua: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Saila



2025eko azaroan



Grafikoen aurkibidea.....	3
Taulen aurkibidea.....	3
Laburdurak eta Hitz Gakoak	4
Laburpena.....	5
Sarrera	6
Arazoaren planteamendua.....	7
Dokumentuaren egitura	7
1. Marko Teoriko eta Kontzeptuala	8
1.1. Afrikako Erlijio Nagusietako Ikuspegiak Sexu- eta Ugalketa- Osasunaren inguruan	9
1.1.1. Afrikako Erlijio Tradizionala (AET), Kristautasuna eta Islamismoa ..	9
1.1.2. Emakumeen eta Nesken Sexu- eta Ugalketa -Osasunerako Ohitura Kaltegarriak.....	10
1.2. Laguntza-Sareak eta Bizkaiko Ehun Asoziatibo Afrikarra.....	10
1.2.1. Bizkaiko Erakunde Afrikarren Analisia	10
1.2.2. Ehun asoziatiboa egitura tradizionalen nazioz gaindiko hedapen gisa	11
1.2.3. Boterre-dinamikak Ehun Asoziatibo Afrikarrean	11
1.3. Sexu- eta Ugalketa-Osasunaren Lege-Esparrua eta Politikak	11
1.3.1. Nazioarteko eta Kontinenteko Lege-Esparrua.....	11
1.3.2. Lege-Esparrua eta Politikak Espainian eta Euskadin	12
2. Inkestatutako Pertsonen Ezaugarri Nagusiak.....	13
2.1. Parte-hartzaileen Profilak	14
2.2. SUOaren hautematea ehun asoziatiboan	17
3. Sexu-Eskubideak.....	18
3.1. Sexu-Hezkuntza	19
3.2. Sexu-askatasuna: Hautemateak eta Autonomia	20
3.3. Diskriminazioa, Presioa eta Sexu-Indarkeriak.....	22
3.3.1. Sexu Transmisiozko Gaixotasunen (STG) Prebentzioaren Hautemateak eta Erronkak.....	23
4. Ugalketa-Eskubideak.....	24
4.1. Amatasuna eta Lana Bateragarria egitea	25
4.1.1. Erdiondoko Lan-Eskubideen Ezagutza	25
4.2. Ugalketa-Osasuna: Prekarietatearen eta Diskriminazioaren bidegurutzeak	26

4.2.1. Haurdunaldiaren Etenari buruzko Ikuspuntua: Etika-, Kultura- eta Osasun-Konplexutasuna	26
4.2.2. Indarkeria Obstetrikoa: Arrazakeria, Kapazitismo eta Ugalketa-Autonomiaren arteko Bidegurutzea	27
4.2.3. Arreta Ginekologikoaren Segurtasun-Pertzepzioa eta Berrikuspen Maiztasuna	28
4.3. Familia-Plangintza eta Kontrazepzioa: Araudi eta Praktikaren arteko Desadostasunak	29
4.3.1. Antzemandako Garrantziaren eta Plangintzaren Errealitatearen arteko Aldea.....	29
4.3.2. Amatasunaren Ikusmoldea Afrikan.....	30
4.3.3. Antisorgailuen Hautematea eta Erabilera: Oztupoak eta Erronkak.....	30
4.3.4. Antisorgailuak Eskuratzeari eta Erabiltzeari buruzko Pertzepzioak.....	31
5. Botere-dinamikak eta genero-lidergoa Bizkaiko migratzaile afrikarren ehun asoziatiboan: emakumeen sexu- eta ugalketa-osasunean dituen ondorioak	33
6. Ondorioak.....	35
7. Aholkuak	36
8. Bibliografia	38

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1 . Atxikipen erlijiosoa.....	16
Grafikoa 2. Jatorrizko herrialdea eta eragin erlijiosoa	16
Grafikoa 3. Emakumeen higieneari buruzko ezagutza iturriak	19
Grafikoa 4. Gizonaren rola sexu-harremanak noiz izan erabakitzean.....	20
Grafikoa 5. Sexi-harremanen eskusibitate.....	21
Grafikoa 6. Erdiondoko lan-eskubideen ezagutza.....	26
Grafikoa 7. Amatasuna mehatxutzat edo estigmatizat hartzea	28

Taulen aurkibidea

Taula 1. Parte-hartzaileen adin tartea	14
Taula 2. Profil demografikoa jatorrizko herrialdearen arabera	15
Taula 3. Gorputz- eta erabaki-autonomiarako joera.....	22

Aurkibide honetan biltzen dira dokumentu honetan zehar erabilitako laburdurak, siglak eta termino espezializatuak, horien esanahia argitzeko eta ulermen bateratu bat ziurtatzeko.

Laburdurak eta Siglak:

AET: Afrikako Erlijio Tradizionala
EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
CEDAW: Emakumeen kontrako Diskriminazio era guztiak Ezabatze Konbentzioa
SUE: Sexu- eta Ugalketa-Eskubideak
STI: Sexu-Transmisiozko Infekzioak
HBE: Haurdunaldia Borondatez Etetea
EMG: Emakumeen Mutilazio Genitala
NBE: Nazio Batuen Erakundea
SUO: Sexu- eta Ugalketa-Osasuna
AB: Afrikako Batasuna
EB: Europar Batasuna

Hitz gakoak:

Eragindako abortua: Haurdunaldia borondatez etetea emakumearen erabakiagatik.

Antisorgailu hormonal transdermikoa: azalaren bidez hormonak kanporatzen dituzten metodoak, adabaki antisorgailuak kasu.

Kapazitismoa: Desgaitasuna edo hezkuntza maila baxua duten pertsonen kontrako diskriminazioa.

Ohiturazkoa: Ohitura edo tradizioetan oinarritutakoa, bereziki esparru lege-esparruan.

Erantzukidetasuna: Erantzukizunen bidezko banaketa, bereziki familiaren zaintzari dagokiona.

Berdintasun diskurtso instituzionala: berdintasun errotorika, baina beti aldaketa erreal eta eraginkorrak eragiten ez dituen.

Sexu-hezkuntza integrala: Sexualitate, genero, harreman, prebentzio eta eskubideen inguruko erabateko hezkuntza.

Feminismo postkoloniala: Mendebaldeko feminismoa kritikatzeko duen korrantea, Hegoalde Globaleko esperientziak ez baititu kontuan hartzen.

Hipersexualizazioa: Pertsona baten alderdi sexualak puzten dituen hautemate estereotipatua.

Interseksionalitatea: Zapalkuntza forma desberdinak(generoa, arraza, klasea, etab.) nola gurutzatzen diren aztertzen dituen ikuspegia.

Familia gurasobakar amadun: ama bat baino ez familia baten buru izatea.

Familia-plangintza: umeak izan, noiz eta zenbat erabakitzea informatuta egonda.

Poliginia: Ezkontzeko forma non gizonak emazte bat baino gehiago dituen (poligamia orokorretik desberdina).

Arrazakeria estrukturala: Politika, lege zein gizarte egituretan instituzionalizatutako diskriminazioa.

Ahizpatasuna: Zapalkuntzako bizipen partekatuetan oinarritutako emakumeen arteko elkartasuna.

Ehun asoziatibo: elkarte eta babes sare komunitarioen **multzoa**.

Indarkeria obstetrikoa: haurdunaldi, erditze zein erdiandoan emakumeek jasandako tratu txar edo deshumanizatua.

Laburpena

Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacionalek sustatutako ikerketa honek Bizkaian dauden Afrikako emakume migranteek beren sexu- eta ugalketa-eskubideen (SUE) gainean duten hautemateei eta bizipenei heltzen die ikuspegi kritiko batetik. Ikerketak faktore soziokulturalen, erlijiosoen, ekonomikoen eta migratzaileen elkarrekintza konplexua aztertzen du, faktore horiek eragina baitute sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko ezagutzetan, autonomian eta zerbitzuetara jotzeko moduan. Lan honek ikuspuntu ez sexista eta antirrazista du, eta haren helburua da emakume hauen errealitate zehatzak ezagutzera ematea.

Helburu nagusia da emakumeen hautemateen eta iritzien azterketa kritikoa eta parte-hartzailea egitea, Bizkaiko afrikar elkartetako buruak eta parte-hartzaileak barne, beharrak identifikatzeko eta gomendio estrategikoak proposatzeko.

Helburu espezifikoaren artean:

- **Emakumeek** arlo pertsonal eta sozialean dituzten **hautemateak eta iritziak aztertzea**, batez ere arreta jarrita haien inguru asoziatiboan.
 - Afrikako emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideei dagokionez, **belaunaldien arteko ikuspegia** jaso eta arrakalak zein jarraipenak identifikatzea.
 - **Beharrak** identifikatzea eta emakumeen bizipenen ikerketan eta analisisan oinarritutako **aholkuak** adierazi.
 - Antzemandako beharrei erantzuteko baliabile posibleak garatu eta bildu, autonomia eta SUEi bidezko sarbidea sustatuz.
 - Afrikako emakume migranteek aurre egin behar dieten zapalkuntzen interseksionalitatea agerian jarri, haien autonomia eta ahalduntzea indartuz.
-

Helburu hauei heltzeko metodologia misto bat erabiltzen da, ikuspegi kualitatiboak zein kuantitatiboak uztartzen dituen Afrikako emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen hautemateak eta iritziak erabatean ulertzeko. Laginean biltzen dira Afrikako 39 emakume, horien artean Bizkaiko 11 afrikar elkarleen parte diren 10 buru. Fase metodologiko desberdinetan egituratu zen ikerketa: **behaketa parte-hartzailea** dinamika asoziatiboak eta genero botere egiturak aztertzeko; diseinu deduktiboa bide-orri espezifiko bat egiteko; inkesta eta galdetegi bidezko datu kuantitatiboen bilketa; erdiegituratutako elkarriketen bidezko datu kualitatiboen bilketa; eta informazio-tailer parte-hartzaileak egitea elkarriketa espazio segurua eskaintzeko.

Prozesu metodologikoak erakutsi zituen tabu kultural esanguratsuak eta sexualitatea jorratzeko hasierako errepara-roa, eta horrek balioztatu zuen testuinguruan kokatutako estrategia sentikorrak ezartzea.

Ikerketaren aurkikuntzek adierazi dute dualtasuna dagoela hazten ari den autonomia eta irauten duten oztopoen artean. Ezagutza eta autonomiaren arloan, SUEn ulermena praktikoa izan baino, hein handi batean diskurtsiboa zela ikusi zen. Sexualitatea ezkontza eta ugalketa esparrura mugatzen duten arau erlijioso eta kulturalen eragin handia dagoen arren, gero eta agentzia handiagoa dagoela nabari da: emakumeen % 44 sexu betebeharraren aurka dago, % 46 antisorgailuen erabileraren alde dago eta % 49 abortuaren debekuarekin ez dago ados. Hala ere, % 36 ez da bere buruaren gaineko erabakiak hartzeko zilegi sentitzen. Sexu-hezkuntza formala eskasa da: emakumeen % 27k baino ez du jaso jatorrizko herrialdeetan, eta % 10ek baino gutxiagok, Bizkaian.

STGen prebentzioari eta genero-rolak dagokienez, prebentzio-metodoen erabileran arrakala esanguratsu bat identifikatu zen: %40k ezagutzen du kanpoko kondoia, baina %20k bakarrik erabiltzen du, eta barne-kondoiari edo GPBaren aurkako txertoa ez du ia inork ezagutzen. Genero-rol tradizionalak irauten dutela begi-bistakoa da; izan ere, inkestatutako emakumeen % 100ek uste du babesa gizakiaren erantzukizuna dela, nahiz eta % 36k erantzukidetasunaren alde egiten duen. Gainera, oztopo sozioekonomikoak eta administratiboak (mendekotasun ekonomikoa, lan-prekarietatea) eragin zuzena dute ugalketa-osasunean. Arreta ginekologikoan hautemandako indarkeria obstetrikoren, arrazakeriaren eta hizkuntza-oztopoen esperientzien berri ematen dute emakumeek, eta horrek esan nahi du % 42 ez dela joaten aldizkako azterketetara. Haien amatasuna estigmatizatuta dagoela uste dute % 26k.

Azkenik, sexualitateari buruzko komunikazioan belaunaldien arteko arrakala dagoela azpimarratzen du ikerketak, ama eta nerabeen arteko elkarrizketa mugatzen duten tabu kulturalak bultzatuta, eta horrek gazteen auto-hezkuntza sustatzen du. **Ondorioen arabera, premiazkoa da esku-hartze interseksionalak egitea sexu-hezkuntza integrala eta praktikoa sustatzeko**, sexu- eta ugalketa-esparruan genero-ekitateari heltzeko eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko bidean oztopo estrukturalak ezabatzeko. Funtsezkoa da politikek eta programek emakume horien agentzia aitortzea eta indartzea, belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzea eta diskriminaziorik gabeko osasun-arreta bermatzea.

Sarrera

Ikerketa hau Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional elkarteak bultzatutako “Bizkaiko emakume migratzaile afrikarren sexu- eta ugalketa-eskubideak: berdintasunaren aldeko eskubideen sustapena eta prestakuntza” proiektuaren esparruan kokatzen da. Genero desberdintasunaren, Afrikako emakumeen migrazioaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen (SUE) arteko bidegurutze kritikoan kokatzen da ikerketa hau, arlo horrek lente interseksionala eskatzen baitu ezinbestean. **Interseksionalitateak**, azterketa hone-tan funtsezkoa den kontzeptuak, aukera ematen digu argitzeko nola identitate sozial eta politikoaren hainbat dimentsio, hala nola generoa, arraza, jatorri nazionala eta migrazio-estatusa, gainjartzen eta elkartzen diren diskriminazioaren eta pribilegioaren esperientzia berezi eta multifazetikoak sortzeko (Crenshaw, 1989; Collins, 2000). Ikuspuntu hori funtsezkoa da emakume arrazializatuak eragiten dituzten zapalkuntzen konplexutasuna ulertzeko.

Oro har, historiak erakusten du emakumeek oztopo handiei egin behar izan dietela aurre, eta oraindik ere aurre egiten

dietela, haien SUEak erabiltzerako orduan. Oztopo horiek areagotzen dira emakume migratzaileentzat, batez ere jatorri afrikarra dutenentzat, **egiturazko arrazakeriaren eta kolonialismoaren ondare iraunkorren eraginpean baitaude. Arrazakeria estrukturala** adierazten da arraza-bereizkeria iraunarazten duten sistema eta politiken bidez, eta eragina du funtsezko zerbitzuak, hala nola osasuna, enplegua eta justizia, eskura izatean (Davis, 1981; Hooks, 1995). Era berean, ikuspegi postkolonialet, hala nola Oyěwùmí-k (1997) artikulatutakoek, aukera ematen dute ulertzeko nola botere-dinamika historikoek eta Mendebaldeko eraginak jarraitu duten gizarte-egiturak eta sexualitateari eta ugalketari buruzko pertzepzioak moldatzen Afrikako komunitateetan. Oyěwùmí, bereziki, zalantzan jartzen du Mendebaldeko genero-kategorien unibertsaltasuna, iradokiz kolonaurreko gizarte afrikarrak askotan ez zirela antolatzen genero-sistema bitar eta zurrunen pean, eta horrek azpimarratzen du prozesu kolonialaren bidez genero-nozio jakin batzuk ezarri zirela.

Beren jatorrizko herrialdeetan, emakume afrikarrek sarritan sentitzen dute beren eskubideen urraketa, tradizio, araudi erlijioso eta egitura politiko-estatal patriarkalen eraginagatik (Mama, 2007). Migrazio-ibilbideak, indarkeria horiek arindu beharrean, areagotu egiten ditu, eta emakumeak genero-indarkeriaren adierazpen berrien eraginpean jartzen ditu, bai igarotzean, bai helmugako herrialdean. Egoera konplexu hori larriagotu egiten da Afrikan sexu- eta ugalketa-osasunari (SUO) dagokionez nagusi diren erlijio-ikuspegi ondoz, bai eta emakumeen eta neskatoen SUOan eragin negatiboa duten praktika tradizional kaltegarrien iraupenaren ondoz ere, askotan emakumeen sexualitatea estigmatizatuz eta gorputz-autonomia mugatuz (Steady, 1981).

Arazoaren planteamendua

Azterlanak Afrikako emakumeek Bizkaiko ehun asoziatiboan beren SUEak nola hautematen eta erabiltzen dituzten aztertzen du, aurreko testuingurua kontuan hartuta. Erakunde horiek rol positiboa duten arren, emakumeen autonomia murrizten duten dinamika tradizionalak errepika ditzakete. **Aldea dago SUEen ezagutza teorikoaren eta egikaritze praktikoaren artean**, arau erlijioso eta kultural murriztaileek, prekaritate sozioekonomikoak, osasun-zerbitzuetako arrazakeriak eta genero-rol tradizionalak eraginda. Egoera horrek ugalketa-autonomia eta erabakitze gaitasuna mugatzen ditu. Ikerketak honako galdera hauei erantzun nahi die, besteak beste: nola hautematen eta erabiltzen dute Bizkaiko ehun asoziatiboko Afrikako emakumeek beren SUEak, eta zer kultura-eta erlijio-faktorek eragiten dute? Nola eragiten dute migratio-testuinguruak eta egiturazko arrazakeriak eskubide horiek gauzatzean? Zer oztopo dituzte kalitatezko eta indarkeriarik gabeko SUO zerbitzuak eskuratzeko? Nola agertzen da belaunaldien arteko arrakala SUOn, eta zer komunikazio estrategia dira beharrezkoak? Eta zein da ehun asoziatiboaren zeregina SUEen sustapenean edo mugaketan, eta zein proposamen dira egokiak?

Azken batean, azterlan hau funtsezkoa da ikusarazteko emakume afrikar migratzaileek aurre egiten dieten zapalkuntzen intersektionalitatea, haien autonomia eta ahalduntzea indartuz. Testuinguru asoziatiboan kokatzen da; izan ere, bertatik lan eginez, politika publiko inklusiboak sustatzen eta erakunde zibilen praktikak hobetzen lagun daiteke, justizia soziala eta ugalketa-justizia sustatuz, emakume guztiek beren SUEak erabat gauzatu ahal izango dituztela bermatuta.

Dokumentuaren egitura

Dokumentua honela antolatzen da: azterlana testuinguruan kokatzen duen sarrera; ondoren Marco Teoriko eta Kontzeptual bat, eragin erlijiosoak, praktika tradizionalak eta lege esparrua aztertzen dituena; jarraian, Inkestaturako Pertsonen Ezaugarri Nagusien eta ehun asoziatiboan SUOari buruz duten Pertzepzioaren azterketa aurkeztuko da; gero, Sexu Eskubideak, Ugalketa Eskubideak, Familia Plangintza eta Kontrazepzioa landuko dira, baita Botere Dinamikak eta genero lidergoa ere ehun asoziatiboan. Txostenaren amaieran, Aholkuak eta Bibliografia atalak daude.

The background is a light cream color. It features several large, overlapping organic shapes in muted teal, terracotta, and burnt orange. In the top left, there is a cluster of small, dark green oval shapes. On the right side, there is a stylized green leaf with multiple pointed lobes. In the bottom left, there is a profile of a person with dark skin, wearing a terracotta headwrap and a large orange circular earring. The person is looking towards the right. A small green plant with several leaves is positioned at the bottom center, partially overlapping the person's headwrap and the large orange shape.

-1-

Marko Teoriko eta Kontzeptuala

Lan hau emakume migratzaile afrikarren errealitatea interpretatzeko ezinbestekoak diren elkarri lotutako hainbat kontzeptutan oinarritzen da. **Interseksionalitatea**, Crenshawk proposatua (1989) eta Collinsek garatua (2000), ezinbesteko tresna analitikoa da, generoa, arraza, jatorri nazionala, migrazio estatusa eta klasea bezalako kategoria sozial eta politikoak nola inbrikatzen eta gainjartzen diren erakusten duena, diskriminazio eta pribilegio esperimentzia bakar eta multifazetikoak sortuz. Ikuspuntu hori funtsezkoa da emakume migratzaileen bizipenak homogeneizatzea saihesteko eta testuinguruan kokatutako esku-hartzeak diseinatzeko. Zapalkuntza-sare horretan, **arrazakeria estrukturala** politiketan, praktiketan eta gizarte-sistemetan arraza-desberdintasuneko patroiak normalizatzea eta instituzionalizatzea da (Hooks, 1995; Davis, 1981), arrazializatutako komunitateek bizi-baliabideak (osasuna, etxebizitza eta enplegua) eskuratzea neurriz kanpo eraginez, eta haien zaurgarritasuna areagotuz. Aldi berean, **feminismo postkoloniala** (Mohanty, 1988; Spivak, 1988) mendebaldeko feminismo hegemonikoaren mugen kritika gisa azaleratzen zen, genero eta ahalduzko nozio eurozentrikoei desafio eginez, ondare kolonialak eta botere dinamika globalek hegoalde globaleko emakumeen bizitzak taxutzen jarraitzen zutela ikustean. Azkenik, sororitatea (Lagarde, 1990) emakumeen arteko ahizpatasun eta elkartasun gisa ulertzen da, elkar laguntzeko, espazio seguruak eraikitzeko eta ahalduzko kolektiborako funtsezko zutabe gisa, partekatutako ezbeharren aurrean, genero-indarkeriak eta SUEak eskuratzeko oztupoak barne. Kontzeptu horiek ez dira esparru teorikoak soilik; genero-desberdintasunean eta Afrikako emakumeen migrazioan gauzatzen dira, eta zapalkuntzen arteko lotura nabaria da hor.

Esparru horretan, ulertzekoa da nola **genero-desberdintasuna eta Afrikako migrazioaren feminizazioa sakon lotzen diren emakumeen migrazio-prozesuarekin; izan ere, prozesu horretan, tradizioa eta erlijioa dira emakumeen SUEak moldatzen dituzten faktoreetako batzuk.**

Afrika kultura-, gizarte- eta politika-aniztasun handiko kontinentea da, eta lege-sistema eta gobernantza-egitura ugari ditu. Hala ere, emakumeen SUEi dagokienez, Afrikako testuinguru askok beren eskubideen erabateko gauzatzea oztopatzen duten erronkei egin behar diete aurre. Lege- eta konstituzio-esparruak egon arren, lege-praxirik eta Afrikako emakumeen eskubideak babesteko politika publiko sendorik ez egotea oztopo nabarmena dira (Mama, 2007). Horren erakusgarri dira justiziarako sarbide mugatua, esparru ekonomiko zein politikoan genero-ezberdintasunek irautea eta oinarritzko eskubideak urratzea. Gainera, lege-sistema dualak —zuzenbide modernoa eta zuzenbide tradizionala— batera egoteak Afrikako emakumeen giza eskubideak errespetatzearen aurka doa askotan, eta faktore sozial, ekonomiko eta estrukturalen elkarrekin konplexua sortzen dute, eta, azken batean, emakumeen migrazioa eragiten dute. Migrazio-prozesuak Afrikako emakumeak etengabe genero-indarkeriaren eraginpean jartzen ditu, jatorritzko herrialdeko babes faltatik, helmugako herrialdeko lege-irregulartasuneraino, arrazakeriaraino eta gizarte-bazterkeriaraino. Ahultasun hori are konplexuagoa da Afrikako erlijio nagusietan sexu- eta ugalketa-osasunaren ikuspegiak desberdinak direla eta; izan ere, sexu-moraltasunari eta ugalketari buruzko puntu komunak dituzten arren, alde handiak dituzte jaiotza-tasaren kontrolari eta sexu-hezkuntzari dagokienez, besteak beste.

1.1. Afrikako Erlijio Nagusietako Ikuspegiak Sexu- eta Ugalketa-Osasunaren inguruan

Sexu- eta ugalketa-osasunaren (SUO) ulermena Afrikako erlijio nagusien artean alda badaiteke ere, guztiek bat egiten dute ezkontzaren, ugalketaren eta sexu-moraltasunaren zentraltasunean, bai eta ongizatearen sustapen orokorrean ere. Hala ere, desadostasun nabarmenak daude jaiotza-tasaren kontrolari, antisorgailuen erabilerari eta sexu-hezkuntzari dagokienez. Oro har, islamak eta protestantismoak jarrera kontserbadoreagoak hartzeko joera dute; katolizismoko zenbait korrontek, berriz, malgutasun handiagoa dute gai horietan.

1.1.1. Afrikako Erlijio Tradizionala (AET), Kristautasuna eta Islamismoa

Afrikako mundu-ikuskeraren tradizioalean (ATR), sexualitatea dimentsio anitzeko kontzeptua da, ugalkortasunari intrintsekoki lotua eta ingurune natural eta komunitarioaren ugalketarako, produktibitateko eta babeserako motor gisa sortua. SUOa, ikuspegi horretatik, holistikoa da, ongizate fisikoa, emozionala, soziala eta psikologikoa barne hartzen ditu, eta antzinako ezagutzetan eta naturarekiko errespetu sakonean oinarritzen da. Garrantzitsua da azpimarratzea, Mendebaldeko ikuskeretan ez bezala, ohiturazko zuzenbide afrikarrak ez diela

ematen norbanakoei beren sexu- edo ugalketa-erabakien gaineko autoritate eskusiborik; horiek familia zabalarekin, komunitatearekin eta lider tradizionalekin negoziatutako adostasunaren emaitza dira (Oyěwùmí, 1997). Bestalde, **kristautasunak**, itxuraz moldagarria izan arren, tokiko ohiturak instrumentalizatu ditu kastitate, obedientzia eta fideltasun doktrina biblikoak inposatzeko, historikoki emakumeak bigarren mailako rola eta ugalketa esleitzen. Azkenik, **islamismoa** bizimodu integral gisa hautematen da; Koranak gizonen eta emakumeen arteko balio espiritualaren berezko berdintasuna ezartzen badu ere (Koran 9:71), haien gizarte- eta familia-rolak elkarren osagarriak eta bata bestearengandik bereiziak dira. Tradizioz, emakumeak etxeko zaintza eta familiaren ohorearen babesa bere gain hartzen ditu, askotan janzkeran arreta jarritik (Koran 24:31), eta ezkontza goiztiarra sustatzen da horniduraren promesa jainkotiarren bidez (Koran 24:32).

1.1.2. Emakumeen eta Nesken Sexu- eta Ugalketa-Osasunerako Ohitura Kaltegarriak

Afrikako testuinguruan, emakumeen eta nesken SUOa larriki arriskuan jartzen da ohitura **tradizional kaltegarriengatik**. Kultura eta erlijio sinismenetan errotuta dauden ohitura hauek, emakumeen sexualitatea kontrolatzea dute helburu nagusi. Sistema juridiko formaletan legez kanpokoa izan arren, ohiturazko eta erlijiozko zuzenbidean baliozkotu izanaren ondorioz iraun du, eta horrek dikotomia legal eta kulturala sortzen du, eta zaildu egiten du hura desagerraraztea.

Praktikarik aipagarrien artean daude emakumeen **mutilazio genitala (EMG)**, haurren ezkontza, amatasun goiztiarra, bularrak lautzea, baginako estutzea eta zigortzeko modu gisa baginan substantzia narritagarriak aplikatzea. Zenbait komunitatetan praktika horiek normalizatu eta onartu dira gizartean, eta horrek azaltzen du haien nagusitasuna, nahiz eta dokumentatuta dauden ondorio kaltegarriak dituztela osasunarentzat eta ongizatearentzat.

Praktika horiek desagerraraztea erronka multifazetikoa da, legezko zigor soiletik haratago doana. Estrategiek **afektiboak eta dimentsio anitzekoak** izan behar dute, eta esparru juridikoa eta haren aplikazioa indartzea, hezikuntza eta sentsibilizazio komunitarioko programak, emakumeen eta neskatuen ahalduntzea eta eragile anitzeko lankidetzak barne hartu behar dituzte.

1.2. Laguntza-Sareak eta Bizkaiko Ehun Asoziatibo Afrikarra

Laguntza-sareak funtsezkoak dira gizarte-bazterketaren arriskuak arintzeko eta migratzaileen integrazioa errazteko. Pertsonen eta administrazio publikoaren arteko zubi-lana egiten dute, funtsezko zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea erraztuz. Elkartetako sareak funtsezkoak da hizkuntza-oztopoak eta eten digitala gainditzeko, eta, horrez gain, alfabetatzen, prestatzen eta bizirauteko oinarritzko zerbitzuak eskuratzen laguntzen du, pobrezia eta gizarte-bazterketa murriztuz.

Testuinguru honetan, emakume afrikarrek elkarteetan elkarbizitzarako eta ahalduntzerako espazio bat aurkitzen dute, non sororitate sareak sortzen dituzten. Interakzio horiek Afrikako feminismo postkolonialaren estrategiak garatzen laguntzen dute, haien esperientzia eta ikuspegi paregabeak islatzen dituztenak eta narratiba hegemonikoei desafio egiten dietenak.

1.2.1. Bizkaiko Erakunde Afrikarren Analisia

Para comprender la percepción y opinión sobre la salud sexual y reproductiva dentro del tejido asociativo africano en Bizkaia, es esencial analizar el comportamiento y la estructura interna de estas organizaciones.

Bizkaiko Afrikako elkarte-sarea heterogeneoa da eta hainbat tipologiatan egituratuta dago:

- **Norbanako afrikarrak buru dituzten elkarteak:** Esparru anitzetan aritzen dira, kultura sustatzetik, taldeen arteko garapen eta elkartasuneraino (adib. AMAFRIKA).
- **Nazionalitatean oinarritutako elkarteak:** Integrazioa eta senidetasuna sustatzen dute jatorrizko herrialde bereko pertsonen artean (adib. Bizkaiko Senegaldarren Batasuna Terranga, Kawral Fulbe Afrik Elkartea - ASKAFAE).
- **Lotura etniko edo tribalek eratutako elkarteak:** Talde bereko kideen arteko kohesioa sustatzen dute, baita elkarte nazional zabalagoak baldin badaude ere (adib. "Oganihu", Igbo komunitatekoa).
- **Izaera erlijiosoko elkarteak:** Kideak beren atxikipen erlijiosoaren arabera biltzen dira (adib. Bidaya Emakume Musulmanen Elkartea, Africa Cooperate de cristianos evangelicos).

1.2.2. Ehun asoziatiboa egitura tradizionalen nazioz gaindiko hedapen gisa

Diasporan dagoen Afrikako ehun asoziatiboa nazio-mugez gaindiko egitura soziopolitiko tradizionalen iraunkortasunaren adierazpentzat har daiteke. Egitura horiek, beren autoritate eta arau-kodeekin, harrera-lurraldeetan berretzen dira. Hala ere, transnazionalizazio horrek emakumeen eta nesken SUOrako kaltegarriak diren praktika tradizionalak zabaltzeko eta normalizatzeko arriskua dakar, sare horien barruan ezkutuan gera daitezkeelako.

1.2.3. Boterre-dinamikak Ehun Asoziatibo Afrikarrean

Antolakuntzaren ikuspegitik, Bizkaiko afrikar elkarteek genero-desoreka nabarmena erakusten dute beren lidergoetan, eta gizonak nagusitzen dira, emakumeen ustezko borondate-faltaren edo etxeko arduren inguruko argudioek justifikatuta. Dinamika horrek boterearen sexualizazioa erakusten du, autoritate egitura tradizional, erlijioso eta familiarretan errotua. Kontrastean, emakumeek helburu eta lidergo propioak dituzten **talde informal paraleloak** garatu dituzte, autonomia erakutsiz. Lidergo formaleko postuetan dauden emakumeek sarritan isolamenduari eta erantzukizun-karga neurrigabeari egin behar izaten diote aurre, gaitasun ekonomiko mugatuak eta zenbait gizonek beren lidergoa zalantzan jartzeak areagotua.

1.3. Sexu- eta Ugalketa-Osasunaren Lege-Esparrua eta Politikak

1.3.1. Nazioarteko eta Kontinenteko Lege-Esparrua

- **Nazio Batuak (NBE):** Emakumearen aurkako Bereizkeria-Mota guztiak Ezabatzeko Konbentzioak (CEDAW), 12. artikuluan, estatu alderdiei eskatzen die berma dezatela emakume guztiak sexu- eta ugalketa-osasunerako duten eskubidea.
- **Europar Batasuna (EB):** 2021eko ekainaren 24ko Ebazpena aurrera eramanez, Batasuneko osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen egoerari buruzkoa, emakumeen osasunaren esparruan (2020/2215(INI)).
- **Afrikar Batasuna (AB):** Kontinente mailan SUOei buruzko lege zehatzik aldarrikatu ez badu ere, 55 kideetako 40k onartutako "Maputoko Protokoloa" (Afrikako Emakumeen Eskubideei buruzko Gutun afrikarra), 14. artikuluan, Afrikako emakumeek osasunerako duten eskubidea aitortzen du, SUOa barne.

1.3.2. Lege-Esparrua eta Politikak Espainian eta Euskadin

Nazio-mailan, SUEak Espainian sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezartzen dira.

Euskadin, SUO arloko lege espezifikorik ez dagoen arren, 2/2010 Lege Organikoan oinarritzen da, eta hainbat politika eta programa jasotzen ditu hura sustatzeko. Euskadin, SUOen genero-politika autonomikoak zerbitzuetara, informaziora eta hezkuntzara bidezko sarbidea bermatzera bideratuta daude, oztopoak ezabatuz. Planifikatu gabeko haurdunaldiak eta STIak prebenitzea, haurdunaldia borondatez eteteko zerbitzuak (HBE) ematea eta ama-haurren osasuna eta familia-plangintza sustatzea dira jarduera nagusiak. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak hezkuntza afektibo-sexuala hezkuntza-curriculumetan sartzen du.

Gainera, Euskadin, SUEak funtsezkotzat jotzen dira:

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak** eta Eusko Jurlaritzaren beste araudi batzuek ezartzen dute SUEak bermatzeko esparrua.
- **Emakundek**, Emakumearen Euskal Erakundeak, genero-berdintasuna eta SUEen babesa sustatzen ditu.
- **Berdindu** Eusko Jurlaritzaren zerbitzuak SUEei buruzko informazioa eta lege-laguntza eskaintzen du.
- **Sexu eta Ugalketa Eskubideen Euskal Behatoki** bat sortzea aurreikusten da, politiken jarraipena eta ebaluazioa egiteko.





-2-

Inkestatutako
Pertsonen
Ezaugarri
Nagusiak

2.1. Parte-hartzaileen Profilak

Azterlan honek **39 emakume afrikar migratzaile ikertu zituen Bizkaian**, eta profil multifazetikoa erakutsi zuen, aldagai soziodemografiko erabakigarriei dagokienez, sexu- eta ugalketa-eskubideei (SUE) buruz dituzten pertzepzioak ulertzeko.

Parte-hartzaileen adin kronologikoa migrazio-testuinguruari datxekion konplexutasuna izan zen. Aitortutako adinaren eta benetakoaren arteko funsgabetasunak Saharaz hegoaldeko eskualde askotan jaiotzak berandu erregistratzeari egozten zaizkio, bai eta jatorrizko eta harrerako herrialdean oinarritzko eskubideak eskuratzeko oztopoak gainditzeko adina estrategikoki manipulatzeari ere (Brits, 2023; Neslen, 2018). Denbora-tarteen araberrako azterketa ezinbestekoa izan zen SUOaren pertzepzioaren aldakortasuna banakatzeko.

Talderik handiena (16 parte-hartzaile) 30 eta 40 urte artekoa izan zen; ondoren, 50 urtetik gorako emakumeak (7 parte-hartzaile) eta 18 eta 30 urte bitartekoak (7 parte-hartzaile). 40-50 urte bitartekoan 8 parte-hartzaile egon ziren guztira, eta 17 urtetik beherako tartean proportziorik txikiena izan zuten, parte-hartzaile bakarra izan baitzuten. Banakatze hori funtsezkoa da bizi-etapek eta informazioa eskuratu ahalak SUOari buruzko ikuspegiak nola testuinguruan jartzen dituzten argitzeko.

Taula 1 - Parte-hartzaileen adin tartea

Adin tartea	Adin tartearen zenbaketa
18 urtetatik 25era	5
25 urtetatik 30era	2
30 urtetatik 35era	8
35 urtetatik 40ra	8
40 urtetatik 45era	4
45 urtetatik 50era	4
50 urtetik gorakoak	7
17 urte baino gutxiagokoak	1
Guztira	39

Hezkuntza- eta alfabetatze-mailari dagokionez, parte-hartzaile guztiek (% 100) gaztelaniaz, beren amahizkuntzan edo beren herrialdeko hizkuntza ofizialean irakurtzeko eta idazteko gaitasunak erakutsi zituzten. Azpimarratzekoa da “oinarritzko hezkuntza” kontzeptuak, testuinguru horretan, hezkuntza-sistema formaletatik kanpo eskuratutako alfabetatzea barne hartzen duela, komunitate-programak edo erlijio-eskoletako oinarritzko irakas-kuntza barne. Hezkuntzaren banaketa honako hau izan zen: % 20 bide ez-formaletatik alfabetatu zen; % 10ek lehen hezkuntza osatu zuen; % 22k bigarren hezkuntza lortu zuen; % 28k Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lortutako lanbide-heziketa du; % 8k unibertsitate-ikasketak amaitu zituen; % 6k ez zuen prestakuntza arauturik egin; eta % 6k “beste prestakuntza bat” adierazi zuen. **Alderantzizko korrelazioa hauteman zen adinaren eta prestakuntza akademikoaren mailaren artean**, eta iradoki zen belaunaldi gazteenak hezkuntza formalera gehiago heltzen direla, eta hori gertatu dela genero-ekitatean eta hezkuntzan berriki egin diren aurrerapenengatik, aurretik zeuden oztopo kulturalak eta ekonomikoak arintzea lortu baitute, hala nola haurren ezkontza edo haurdunaldi goiztiarrak. 39 emakumeko lagin batetik ikusi zen EAEko Lanbide Heziketan 11 parte-hartzaile izan zirela, eta dentsitate handiena 30-35 urteko tartean izan zela. Unibertsitateko hezkuntza 3 emakumek bakarrik lortu zuten, guztiak 35 eta 40 urte bitartekoak. Oinarritzko maileri dagokienez, 8 emakume bide ez-formaletatik alfabetatu ziren,

eta adin-talde zaharrenetan nagusi izan ziren; 4, berriz, lehen hezkuntzara joan ziren. Bigarren hezkuntza 9 emakume osatu zuten, eta banaketa zabala izan zuen adin tarte guztietan. Horrez gain, kategoria nagusiekin bat ez zetozen 4 kasu erregistratu ziren: “beste formazio bat” deklaratu zuen emakume bat, 2k adierazi zuten ez zirela inoiz eskolara joan, eta 1ek nahiago izan zuen ez erantzutea.


Jatorrizko herrialdearen arabera **konposizio demografikoak** aniztasun nabarmena erakutsi zuen, eta nazionalitate ekuatoguinearreko emakumeak nagusitu ziren nabarmen, guztizkoaren % 15 baitziren. Gainerako lagina hainbat herrialdetan banatu zen: Senegal (7), Nigeria (4), Gabon (2), Boli Kosta (2), Mauritania (1), Ginea Konakry (1), Ginea Bissau (1) eta Kamerun (1). Horrez gain, 4 emakume identifikatu ziren, eta haien jatorrizko herrialdea “Ginea” izendatu zen modu generikoan. Kategoria hori, aztertutako migrazio-testuinguruan, Gineako Errepublikari (Ginea Konakry) dagokiola uste da.

Taula 2 - Profil demografikoa jatorrizko herrialdearen arabera


Jatorrizko Herrialdea	Jatorrizko Herrialdearen Zenbaketa
Erantzunik gabe	1
Kamerun	1
Boli Kosta	2
Gabon	2
Guine	1
Guine Ecuatoriala	1
Guinea	3
Ginea Bisau	1
Ekuatore Ginea	14
Ginea Konakry	1
Mauritania	1
Nigeria	4
Senegal	7
Guztira	39

Parte-hartzaileen **atxikipen erlijiosoa** faktore garrantzitsua da, hezkuntzan eta gizarte-roletan duen eragina dela eta. Bi konfesio nagusi identifikatu ziren: kristautasuna (bere alderdi ezberdinetan) eta islama. 39 emakumetatik, % 54 katolikoa zen, % 29 musulmana, % 8 kristau protestantea, % 5 eliza erreformatukoa, % 3 mendekostekoa eta % 3 “beste erlijio batzuetakoa”. **Jatorrizko herrialdearen eta atxikipen erlijiosoaren arteko korrelazioa** berezkoa da. Kristautasuna Erdialdeko eta Mendebaldeko Afrikako parte-hartzaileen artean ikusi zen batez ere (katolizismoa Ekuatore Ginean, Ginea Konakryn, Kamerunen, Gabonen, Nigerian; protestantismoa Ekuatore Ginean; erreformismoa Nigerian); islama, berriz, nagusi izan zen jatorriz Senegal, Boli Kosta, Gabon, Ginea Bissau, Ginea Konakry eta Mauritaniakoak zirenen artean.

Grafikoa 1 - Atxikipen erlijiosoa



Grafikoa 2 - Jatorrizko herrialdea eta eragin erlijiosoa



Egoera zibila eta bizileku-egoera autonomiaren eta zaugarritasunaren adierazle kritikoak dira. 39 emakumetatik 14 ezkongabeak ziren, 11 bikote harremanean zeuden, 7 ezkonduak, 4 dibortziatuak, 1ek maitale bat zuen eta 2k ez dute erantzun. Egoera zibilaren, egoera sentimentalaren eta bizitoki-egoeraren arteko korrelazioa aztertzeak mendekotasun ekonomikoaren eredu konplexuak azaleratu zituen. Alokairu-gastuak % 51k bere kabuz ordaintzen zituen, % 13k familia-etxebizitza batean bizi da, % 31k adierazi du mutil-lagunak edo senarrak ordaintzen zituela alokairu-gastuak, % 2k maitale bat du, eta zehaztu du gizon ezkondua dela, alokairu-gastuak ordaintzen dizkiona, eta % 3k ez du erantzun.

Ohiturazko ezkontzak, Afrikako hainbat herrialdetan legez onartuta dagoenak, konplexutasunak ditu Bizkaiko migrazio-testuinguruan, ez baitago legezko baliozkotzerik eta izapidetze-kostuak/denborak handiak baitira. Hori dela eta, emakumeek “ezkongai-harreman” terminoa erabiltzen dute beren ezkontideekin batera bizitzea deskribatzeko. **Poligamiaren pertzepzioa eta tolerantzia** ere Bizkaiko arau monogamikora egokitzen da, jatorriz le-

gezko lotura poligamoak zituzten emakumeak testuinguru berrian beren senarrentzat egokitutako terminologia erabiltzera eramanez.

Parte-hartzaileak ehun asoziatiboan afiliatzeari dagokionez, inkestatutako 39 emakumeetatik 21 egitura asoziatiboek ordezkatzan zituztela sentitzen zen. Hala ere, elkarte bateko kide izan arren guztiz identifikatuta sentitzen ez zen segmentu bat identifikatu zen, eta beste talde batek sare informaletan parte hartzen zuen, «Las Mamuris» izenekoan, esaterako, baina erakunde formalarekin erabat identifikatuta egon gabe. Ikusi diren afiliazio formalen artean, Bizkaiko Nigeriarren Elkartea, Baax Yaay, Baobat, Congo Vascas, Edo Elkartea, Hally Puty, Igbo Elkartea, IRDAS, Junt@s Caminamos / Junt@s y Juntos, Keur Aram eta Mugarik Gabeko Medikuek zeuden, eta horrek esan nahi du parte-hartze selektibo bat edo identifikazio partzial bat dagoela egungo ehun asoziatiboarekin.

2.2. SUOaren hautematea ehun asoziatiboan

Bizkaiko elkarte-sarean sartuta dauden Afrikako emakumeek sexu- eta ugalketa-osasuna (SUO) nola hautematen eta esperimendatzan duten aztertzen du ikerketak, jatorrizko herrialdeetan eta migrazio-prozesuan izandako bizi-penak kontuan hartuta.

SUOa oso gutxi lantzen da beren komunitateetan, eta **isiltasun- edo tabu**-maila handiarekin ikusten da. Elkarriketatutako emakumeek adierazi zuten gai horiei buruzko banakako ezagutzaren itxaropen inplizitua dagoela, eta horrek zaildu egiten duela komunitateko espazioetan eztabaidatzea. Isiltasun hori kultur arau tradizionalei egotzi dakieke, non sexualitatea eta ugalketa lotsazko gaiak diren, zirkulu oso pribatuetan edo iragate-ohikuneen bidez eztabaidatuak, publikoki azaltzea transgresio moralizat hartuz. SUOri buruzko hezkuntzarako eta elkarriketarako espazio formal edo informalik ez egoteak zalantzak argitzeko, kontzeptuak desmitifikatzeko edo informazio zehatza eskuratzeko aukerarik gabe uzten ditu emakumeak, eta horrek erabaki desinformatuak edo praktika kaltegarriak egitera eraman ditzake. Emakume horien artean SUOren ikusmoldeak definizio biomediko bat gainditzen du, eta sexu-bizitza asebetegarria eta indarkeriarik gabeko amatasuna hartzen ditu barnean. Hala ere, ikuspegi hori sustrai tradizionalekin lotzen da, non sexu-askatasuna promiskuitate gisa eta ugalkortasuna dohain jainkotiar gisa interpreta daitezkeen. Bikoiztasun horrek norbanakoaren ongizatearen eta SUOren eremuan duen oihartzun komunitarioaren arteko berezko lotura nabarmentzen du.

Modernitate diskurtsiboaren eta tradizioaren arteko dikotomia ikusten da emakume hauen bizipenetan. Harrerako gizarteak (Bizkaia) sustatzen dituen eskubide eta askatasunen eta jatorrizko kulturaren ezarritako itxaropen eta balioen arteko barne-gatazka izan dezakete. Horrek estresa eta zailtasunak sortzen ditu bere SUOari buruzko erabakiak hartzean. Sexu-askatasuna erabiliz gero “promiskuotzat” hartzeko beldurrak autozentsurara eta SUO zerbitzuak saihestera eraman ditzake. Horrez gain, ugalkortasuna jainkozko dohaintzat hartzeak seme-alabak izateko gizarte- edo familia-presioa eragin dezake, eta horrek familia plangintzan eragiten du.

Ehun asoziatiboaren barne-dinamikei dagokionez, emakumeen garapen sexualari laguntzeko funtsezko rola duen arren, arau soziokulturalak eta genero-sinesmenak errespetatuz, SUO oraindik ere «gainditu gabeko irakasgaia» izatearen kontzientzia orokor bat dago. Gizonezkoen artean SUOari buruzko eztabaidetan parte hartzeko mesfidantza sumatu zen, eta hori, elkarriketatuen arabera, informazio faltarekin lotzen da. Egoera horren ondorioz, gizon batzuek harkorrak izatea simulatzen dute, baina nahiago dute gai horiek «gizonen espazioetan» eztabaidatu. Emakumeek, bestalde, gaia emakumeen espazioetan soilik lantzea komeni den eztabaidatzen dute, desinformazio eta arbuio gehiago saihesteko gizonak ere sartu behar direla kontuan hartuta.

Erronka horiek gorabehera, **Bizkaian** SUOari ekiteko **aukerak** identifikatu dira. Zehazki, aztertutako hamar erakundeek liderretatik bi aktiboki ari dira bultzatzen SUOa beren elkartetan sartzea, emakumeen sexu-askatasunak sustatzeko helburuarekin. Azterketa horrek SUOa migrazioaren eta kultura-aniztasunaren testuinguruan lantzeko zailtasuna azpimarratzen du, eta tradizioak nahiz errealtate berriak kontuan hartzen dituzten estrategia sentikorren beharra nabarmentzen du.

-3-
Sexu-
Eskubideak



Inkesta egin zaien Afrikako emakumeen **Sexu Eskubideen** azterketak agerian utzi du interakzio konplexua dagoela kultura- eta erlijio-araudien eta mendealdeko testuinguruaren eraginez artean.

3.1. Sexu-Hezkuntza


Afrikako komunitateetako sexu-hezkuntzak lotura estua du marko kulturekin eta erlijioarekin. Marko horiek garbitasuna eta ugalketa lehenesten dituzte ezkontzaren barruan; horrek guztiak kontraste nabarmena sortzen du Mendealdeko ikuspegiekin, eta emakumeentzako erronkak planteatzen dituzte egokitze-prozesuan. Testuinguru horretan, emakumeen sexualitatea gai multifazetikoa da, plazeraren onarpen esplizitutik hasi eta plazera modu hertsian tabu bihurtzeraino doa.

Emakumeek jasotzen duten sexu-hezkuntza, menarkiarekin hasia (lehen hilekoa), batez ere gorputz higieneko praktiketan oinarritzen da, irudi matriarkalek (amek eta amonek) transmititutakoetan. Afrikan, emakumeen higie-nea gehiago nabarmentzen da. Izan ere, hilekoa seinale gisa hartzen da zaintza areagotzeko, konpresak erabil-teea, bagina garbitzea eta barruko arropa zaintzea barne.

Datuak aztertuta, ikusi zen belaunaldien arteko transmisioa eta transmisio matriarkala direla emakumeen higie-nea arloko hezkuntzarako bektore nagusia 39 parte-hartzaileen artean, eta amonak direla ezagutzaren lehen iturria kasu gehienetan, guztizkoaren % 54,5.

Grafikoa 3 - Emakumeen higieneari buruzko ezagutza iturriak

Emakumeen higie-nea



Sexu-hezkuntza tradizionalak bere baitan har ditzake osasunarentzat ondorio larriak dituzten praktika kaltegarriak, hala nola emakumeen genitalen mutilazioa (EMG) edo birjinak ez diren emakumeen baginako estutze-praktikak, egoera larrietan ondoriozta daitezkeenak, hala nola minbizi pelbikoa. Mendealdeko testuinguruan praktika horiek informazioarekin eta sexu-osasunerako sarbidearekin alderatzea ezinbestekoa da, eta harrerako ingurunean “berreziketa” dagoela nabarmentzen da, Bizkaiko eskoletan irekitako sexu-hezkuntzak “aldaketa” esanguratsua adierazten baitu.

Familiak kanpoko sexu-hezkuntzari dagokionez, gizarte-ikuspegi integralagoa duena, datuek erakusten dute galdetutako emakumeen % 53,8k sexu-hezkuntza edo -orientazioa jaso zuela bere jaioterrian, batez ere eskolako hitzaldien, elkarten eta mediku-konsulten bidez. Hala ere, % 43,6k ez zuen jaso hezkuntza hori, eta % 2,6k nahiago izan zuen ez erantzun.

Euskadin, egoerak eten nabarmena erakusten du: emakumeen % 25,6k bakarrik jaso du orientazio mota hori, eta asistentzia medikoaren eta elkarteetako hitzaldien bidez bakarrik eskuratu du; % 74,4k, berriz, ez du izan.

3.2. Sexu-askatasuna: Hautemateak eta Autonomia

Sexu askatasuna Afrikako marko erlijioso eta tradizionaletan eztabaida gisa ikusten den kontzeptua da, non sexualitatea nagusiki ezkontzaren barruan ulertzen den eta garbitasun espektatibek zein genero rolek gidatzen duten. «Sexu askatasunak», mendebaldeko zentzuan, tentsioa sortzen du jatorrizko kultur araudiekin.


Sexu-askatasunaren pertzepzioa: Erlijio musulmanean, sexualitatea senar-emazteen barruan baino ezin da ulertu eta eskuratu. Sexu-hastapenerako gizarte-presiorik ez dago hasieran, baina emakumeak ezkontzeko kulturaliki ezarritako adina gainditzen duenean agertzen da.

Lehen sexu-harremanetarako adinari dagokionez, % 41ek adierazi zuten ez dagoela adin finkorik ekitaldi horretarako, faktore anitzeko errealitatea dela argudiatuta. Aitzitik, inkestan parte hartu duten emakumeen % 10ek soilik uste du badela adin jakin bat birjintasuna galtzeko. Gainerako parte-hartzaileek ez erantzutea erabaki zuten.

Migrazio-prozesuak sexualitatearen pertzepzioan eta erabileran eragiten du, eta emakumeen sexu-autonomia berriz ebaluatzea errazten du. Sexu-bizitza behartutako ezkontzari lotuta egon daitekeen testuinguruetatik sexu-askatasun handiagoa eskaintzen duen harrera-gizarterako trantsizioa ikusten da.

Sexu-harremanak noiz izan erabakitzerakoan gizonezkoak duen rolari dagokionez, parte-hartzaileen % 46 ez zeuden ados gizonezkoa izatearekin erabakia hartuko duena, eta emakume batek bakarrik babestu zuen baieztapen hori. Gainerako % 51k ez erantzutea aukeratzeak gaiaren inguruko zuhurtzia, deserosotasun edo konplexutasun maila handia iradoki lezake, eta horrek bere jarrera argi eta garbi kategorizatzea zailtzen du.


Grafikoa 4 - Gizonaren rola sexu-harremanak noiz izan erabakitzean



Sexu-gozamenari buruzko pertzepzioak bikote-harreman formaletatik kanpo sarritan portaera kasual edo "libertino" gisa interpretatzen dira, sexualitatea eskusibotasunarekin lotzen duten arau kultural errortuak islatuz.

Sexu-harremanen eskusibotasunari dagokionez, parte-hartzaileen iritziak banatuta daude. % 41ek uste du bikoteko harreman baten barruan soilik kokatu behar direla, aldiz, % 10ek ez du uste beharrezkoa denik. Inkestatuen % 49k ez erantzutea erabaki zuen. Erantzunik ezaren ehuneko handi horrek adieraz lezake gaia zaila dela edo parte-hartzaileen artean adostasun argirik ez dagoela, eta, agian, behin betiko iritzia adierazteko errezeloa islatuko luke.

Grafikoa 5 - Sexi-harremanen eskusibitatea



Inkesten arabera, pertzepzio tradizionalak egon arren, emakumeen sexu-autonomiarako eskubideari buruzko kontzientzia argia dago. Inkestan parte hartu duten emakumeen % 100ek arbuiatzen dute sexualitate askea eta emakumearen duintasuna bateraezinak direnik. Aurkikuntza honek azpimarratzen du emakumearen moralitasuna bere bizitza sexualetik askatzen duen ulermenaren sendotzea, duintasun pertsonalaren zutabe bezala askatasunaren eta errespetuaren garrantzia nabarmenduz.

Ezkontza-testuinguruan, datuek **gorputz- eta erabaki-autonomiarako joera nabarmena adierazten dute:**

Taula 3 - Gorputz- eta erabaki-autonomiarako joera

Baieztapena	«Bai» baieztapenari emakumeen %	«Ez» baieztapenari emakumeen %
Emakume ezkondu batek ez dio bere gorputza ukatu behar senarrari	% 6 (2 emakume)	% 94 (37 emakume)
Haurdunaldian zehar harremanak ez dira ohikoak izan behar	% 44 (17 emakume)	% 56 (22 emakume)
Emakumeak ez ditu antisorgailuak erabili behar	% 3 (emakume 1)	% 97 (38 emakume)
Emakumeak erabakiak hartzeko eskubiderik ez du	% 47 (18 emakume)	% 53 (21 emakume)
Emakumeak ez du haurdunaldia eten behar	% 4 (2 emakume)	% 96 (37 emakume)
Gizonak emaztearekin sexu-harremanak izan ditzake nahi duenean	% 46 (18 emakume)	% 54 (21 emakume)

